

JASANGARRITASUN FAKTOREARI EZ! PENTSIOAK MURRIZTEN DITUELAKO, LANGILERIA TXIROTZEN DUELAKO, EUSKAL HERRIARI GIZARTE SEGURANTZAREN BEREZKO ESPARRUA UKATZEN DIOLAKO.

Pentsioen erreforma berri baten mehatxu pean gaude. Eraso berri honek badu izena: jasangarritasun faktorea. Espainiako gobernuak burutzen ari den eraso sakon baten aurrean gaude, zeinak gizarte eta politika mailan ezarpen bikoitza ekarriko digun. Jasangarritasun faktoreak pentsio sistemaren babes maila nabarmenki kaltetuko duen prozedura egokia dugu. Errezeta hau Euskal Herriko langileei ezarriko zaie, hauen erabakitze gaitasuna ukatuz.

1. **Jasangarritasun faktoreak, epe motzagoetan, pentsioetan egiten den gastua murriztu nahi du zorrozki.** Madrilek eta Bruselasek erabaki dute dagoeneko: langileriari, pentsioen bidez, joango zaien errenta gero eta txikiagoa izango da.
2. **Bizi-itxaropenak ez du pentsio-sistema arriskuan jartzen, baizik eta politika neoliberelek, pentsio-sistema eutsiezin bihurtuz.** Finantza-munduari, aseguru-enpresei eta aliatuak diren elite politikoei traba egiten die pentsio-sistema publikoak.
3. **Jasangarritasun faktorea ez da pentsioak bermatzen dituen botika. Aitzitik, pentsioak kaskartuko dituen etengabeko murrizketa ezarriko du.** Jasangarritasun faktorearekin pentsioaren ideia, baldintza batzuk betez, eskubide finkatu izatearen ideia alegia, desagertuko da.
4. **Jasangarritasun faktoreak joera berriak ezarri nahi ditu berekin: pentsiodunek erretiro txikiagoa izango dute, eta langile gehiago erretirorik gabe geratuko dira.**
5. **Jasangarritasun faktorea Estatuak bankuei eta aseguru-etxeei, beren merkatu-kuota handi dezaten jartzen dien alfonbra gorria dugu.** Euren azterketek halaxe diote. Oraindik orain kontratatu diren pentsio-planen kopurua urria da, eta kapital ekarpenak apalak dira.
6. **Jasangarritasun faktorea Euskal Herriari ezartzen zaion elementu berria dugu.** Berrito ere, dena egosten ari dira Madrilen. Adituen batzordea bankako, aseguru-tako eta sindikatu itunzaleen, Toledoko ituna sinatu zuten... pertsoez osatua dago. Denek norabide berean dihardute. Ezin dugu EAJ, PSOE, CiU eta PP-ren ekimena ahortzi, jasangarritasun faktorea eskatuz Madrileko Kongresuan.

Gizartearen egoera benetan negargarria da. Horrek berresten gaitu eskubide laboralak eta sozialak bermatuko duen pentsioetako euskal sistema publikoa aldarrikatzeko eskakizunean. Datozen asteak biziki garrantzitsuak gertatuko dira. Oldar eta eraso berriak jazoko dira. Hauei aurre eginez, euskal mugimendu sindikalak eta sozialak erronka handia du aurrean, gure herriak behar duen gizarte-alternatiba osatze aldera. Beren irabaziak segurtatu nahian txirotasuna ezarri nahi digutenei aurre eginez, gure herria gobernatzen duten eta proiektu neoliberalarekin bat datozen edo bestela, burujabetasun handiagoa lortzearren egungo esparru juridiko-politikoak dituen ahultasunak gainditzeko ezer egiten ez duten elite politikoei aurre eginez, gure alternatiba sortu behar dugu. Joko arauak aldatu behar dira: agendaren erdian Euskal Herria eraikitze beharra jarri behar dugu, berdintasuna, justizia, duintasuna,... bermatuko dituen gizarte-oinarrietan funtsatuz. Eta egoera horretan, jendartearen gehiengoaren interesei erantzuneko dien Gizarte Segurantzaren eta berezko Babes Sozialaren Sistema izateko premia inoiz baino beharrezkoagoa gertatzen da.